



AIARAKO UDALAK 2022ko URTARRILAREN 20an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

Montse Angulo Solloa andrea

José Antonio Bartolomé Pesquera
jauna

Susana Martín Benavides andrea

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendíbil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko urtarrilaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa modu telematikoan bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:



1.- Onestea, bidezkoa bada, 2021eko abenduaren 23an eginiko ohiko bilkuraren akta

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Alkateak 2021/9 Kreditu Gehigarriaren Espedientearen berri ematen du. Horretaz gain, idazkari kontu-hartzailearen txostenaren berri ematen du, aurrekontu-egonkortasuna hausteari buruzkoa.

Udalbatzako kideei idazkari kontu-hartzailearen txostenaren berri ematen zaie. Alkatetzadekretu baten bidez onetsi den Kreditu Gehigarriaren 2021/9. espedienteari buruzkoa da txostena eta aurrekontu-egonkortasuna hautsi dela ezartzen da.

Iruzkirik ez dagoenez, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

IKUSI DA.- 2020ko likidazioak gastu orokorren zatirik diruzaintza-geldikinaren zati bat erabiltzeko beharra ekarri duela. Hori gastu-aplikazioak sortzeko egiten da, saihestezinak diren eta 2022 urtearen aurrekonturako utzi ezin diren ordainketak daudelako.

IKUSI DA.- 2021eko abenduaren 28an sinatutako idazkari kontu-hartzailearen txostena, diruzaintzako geldikinarekin gastu orokorrak ordainduz egonkortasuna betetzeari buruzkoa.

AINTZAT HARTU DA.- Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 eta 7.3 artikulak, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan.

Udalbatza organo kontu-hartzaileak eginiko txostenaren jakinaren gainean dago. Txosten hori 2021ko abenduaren 28an sinatu zen, eta aurrekontu-egonkortasuna haustearen ondorioz diruzaintza-geldikina erabiltzeari buruzkoa da. Txostenak honako hau dio:

“KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

GAIA: *Aurrekontu-aldaketa, gastu orokorrak diruzaintza-geldikinaren kontura gera daitezten.*



Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauari (17/2014 Foru Arauak aldatuta) jarraikiz, diruzaintza-geldikina erabiltzeko aldaketak egin dira. Arau horien arabera, geldikinaren kontura kreditu-aldaketa onesteko, beharrezkoa da Udalbatzako osoko bilkurari kontu-hartzailearen txosten bat helaraztea. Txosten horretan egonkortasunaren helburua hausten dela frogatu behar da. Hori guztia eta Aiarako Udaleko kontu-hartzailearen karguaren berezko funtzioak kontuan hartuta, bi eranskin dituen honako txosten hau egin da:

- *I. eranskina: geldikina erabiltzeko proposamena, hainbat kreditu gaitzeko.*
- *II. eranskina: kontu-hartzailearen txostena, diruzaintza-geldikinarekin gastuak finantzatuz egonkortasuna betetzeari buruzkoa.*

I. ERANSKINA: GELDIKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA.

ESPEDIENTE HONEN AURRETIK ERABILI EZ DEN 2020KO LIKIDAZIOKO GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA: 188.468,65 €.

ERABILERA-PROPOSAMENA: 2.405 €

Honako aurrekontu-aplikazio hauek handitzeko:

<i>PARTIDA</i>	<i>IZENDAPENA</i>	<i>ZENBATEKOA/€</i>
<i>934.369.000</i>	<i>BANKU-GASTUAK</i>	<i>700 €</i>
<i>433.643.000</i>	<i>MURGAKO POLIGONOKO BIRGAITZE INTEGRATUAREN PROIEKTUAREN IDAZKETA</i>	<i>1.600 €</i>
<i>230.120.000</i>	<i>GIZARTE-LAGUNTZAILEAREN ORDAINSARIAK</i>	<i>105 €</i>

ZENBATEKOA GUZTIRA: 2.405,00€.

***II. ERANSKINA: IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA,
EGONKORTASUNA HAUSTEARI BURUZKOA***



I. TXOSTENAREN FUNTSA

Arabako Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren (17/2014 Foru Arauak aldatuta) 7.1 artikuluari jarraikiz, baldin eta aurrekontu-egonkortasunaren edo zor publikoaren helburua edo gastuaren araua hausten bada, administrazio urratzaileak plan ekonomiko-finantzario bat egingo du. Plan horrek helburuen edo gastuaren araua aurtengo eta hurrengo urtean bete dadin baimenduko du.

Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikulua ezartzen du diruzaintza-geldikinekin gastuak finantzatzean aurrekontu-egonkortasunaren helburua hausten bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari Udaltzaren osoko bilkurari txosten baten bidezko komunikazio bat egingo zaiola. Txosten hori organo kontu-hartzaileak egin beharko du eta aipatutako egoera frogatuko da, toki-korporazioaren jasangarritasun finantzarioaren analisi eta ebaluazio batekin batera. Analisi eta ebaluazio horrek gutxienez honako hauek izan behar ditu:

- a) Entitatearen eta horren menpe dauden beste erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren helburuak.*
- b) Sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioak, kontuan izanda eboluzioaren joera, hau da, aldaketarik behar ez duten politikak, eta aztertutako aldirako aurreikusitako neurrien eragina.*
- c) Sarreraren eta gastuen proiektzioen oinarri izango diren kasu nagusiak.*
- d) Aurrekontuen eta finantzen egoera diruzaintza-geldikina agortzen den unean.*
- e) Kasua denean, inbertsioaren funtzionatzeko erak gastu arruntean izandako eragina.*

Txosten hau kreditu aldaketaren espedientearen parte izango da.

Arabako Foru Aldundian toki-erakundearen arloan eskumena duen sailari osoko bilkuraren akta helaraziko zaio, organo esku-hartzailearen txostenarekin eta gainerako dokumentu euskarriekin batera. Sail horrek beharrezkoa den informazio gehigarria eskatu ahal izango du 30 eguneko epean. Horretaz gain, neurri osagarriak hartzea ere eskatu ahal izango du, besteak beste, plan ekonomiko-finantzario bat egitea, toki-erakundearen jasangarritasun finantzarioa bermatzeko. 30 eguneko epe hori igarota Arabako Foru Aldundiak ez badu berariazko ebazpenik eman, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da.

EREMU SUBJEKTIBOA:

Txosten honen helburua honako hau da: txosten hau barne duen espedientearen aurrekontu-aldaketaren finantzaketak eragin duen ezegonkortasuna aztertzea. Finantzaketa hori Aiarako Udaleko diruzaintza-geldikinarekin egin da.

HELBURUAK:



Diruzaintza-geldikinaren bidez proposatutako aurrekontu-aldaketa finantzatzek egonkortasunaren printzipioa hausten duen arren, hauste horren izaera koiunturala da, eta ez egiturazkoa.

Horretarako, aurrekontu magnitudeak aztertu behar dira, eta txosten honen helburua dhonako helburu hauek betetzen direla egiaztatzea da:

- *Aurrezki garbi positiboa*
- *Diruzaintza-geldikin positiboa*
- *Finkatutako zorpetze-maila ekitaldi bakoitzean ezarritako muga baino gutxiago dela*
- *Aurrekontu-egonkortasuna, superabit edo finantzatzeko ahalmenarekin (SECen arabera) finkatuta*
- *Gastuaren araua betetzen dela*

Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren (17/2014 Foru Arauak aldatuta) 7. artikulua 3. apartatuari jarraikiz, txosten honek honako egitura hau izango du:

- 1.- Egungo egoeraren diagnostika: erakundearen **aurrekontu-egonkortasunaren helburuak** betetzen edo hausten diren azterzea*
- 2.- **Gastuen eta diru-sarreraren egoeren proiektzioa***
- 3.- **Inbertsioak gastu arruntean izango duen eragina***

II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO FINANTZARIOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN HELBURUAK

Abenduaren 9ko 641/2020 Diputatuen Kontseiluaren akordioa aipatzeko beharra dago. Horren arabera, Arabako toki-erakundeei zerga araua salbuespenez eten zaie 2020 eta 2021 urteetarako. Ondorioz, toki-erakundearen egonkortasun helburuak eta zor publikoa etengo dira, eta ez zaie gastuaren araua ezarriko aipatutako bi urte horietan.

Hala ere, 2020 ekitaldiari dagokion onetsitako azken likidazioan eskuratutako datuetatik honako hauek azpimarratzen ditugu:

MAGNITUDEA	ZENBATEKOA	BETETZEA/HAUSTEA
<i>Aurrezki garbi doitua</i>	467.891,52 €	POSITIBOA
<i>Diruzaintza-geldikina gastu</i>	590.779,40 €	POSITIBOA



<i>orokorretarako</i>		
<i>Aurrekontu-emaitza</i>	374.781,68 €	POSITIBOA
<i>Zorpetze-maila</i>	0	
<i>Aurrekontu-egonkortasuna</i>	350.068,98 €	BETETA
<i>Gastuaren araua</i>	-307.315,42 €	% -14 BETETA

III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN ETORKIZUNA

Denboraldi honetarako plan ekonomiko-finantzarioaren zenbatekoak iragartzeko beharrezkoak diren aldagaiak eta neurriak zehaztasunez definitzeko, honako balizko EGOERA hau ezartzen da:

- *Mantenu ekonomikoko egoera bat dugu oinarritzat. Hala ere, gure jokaeran zuhurtasunez aritu behar gara, pandemiak oso egoera ekonomiko ahulean utzi dituelako operadore ekonomikoak. Horrek Udalak jasotzen dituen diru-sarreretan eragina izan dezake, bereziki TEFFFean parte-hartzeagatik eskuratutakoetan.*
- *Gastuei dagokienez, arlo horretan murrizketak mantentzetik abiatzen gara, bai langileen gastuetarako, eta Estatuko aurrekontu orokorren legeetatik eratorritako bestelako gastuetarako ere bai.*

Ekitaldi honetan, 2020aren antzera, abenduaren 9ko 641/2020 Diputatuen Kontseiluaren akordioa jarraitu da. Hori dela eta, Arabako toki-erakundeei zerga araua ezartzea eten da salbuespenez, 2020 eta 2021 urteetarako. Ondorioz, toki-erakundeen egonkortasun helburuak eta zor publikoa eten dira, eta ez zaie gastuaren araua ezarriko aipatutako bi urte horietan. Hala ere, Arabako toki-erakundeetarako erreferentziazko desoreka-tasa orientagarria erabaki da. Tasa hori Europako Kontu Sistemari jarraikiz kalkulatu da. Tasa 2021erako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtserako hasierako behin betiko partaidetzaren eta 2020 ekitaldirako funtsaren hasierako behin betiko partaidetzaren arteko aldearen baliokidea da. Azken hori Diputatuen Kontseiluaren 186/2020 Akordioan onetsi zen.

MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA.

Hona hemen adierazitako ekitaldietan aztertutako magnitudeen joera, ekitaldien likidazioetatik eratorriak:

HELBURUAK	2019	2020
<i>Aurrekontu-egonkortasuna</i>	<i>305.675,20</i>	<i>350.068,98</i>



Egonkortasuna/Diru-sartze ez finantzarioen %	% 12,75	% 14,64
Gastuaren araua	20.388,08	-307.315,42
Zorpetzea	0	0
Aurrezki garbi doitua	361.604,53	467.891,52
Aurrezki garbia/Diru-sartze arrunten %	% 15,56	% 19,5
DIRUZAINNTZA-GELDIKINA	590.384,93	590.779,40

IV. AURREKONTUEN ETA FINANTZEN EGOERA DIRUZAINNTZA-GELDIKINA AGORTZEN DEN UNEAN.

III-C.1 DIRUZAINNTZA-GELDIKINA.

Diruzaintza-geldikin positiboak une jakin batean erakundearen guztira metatutako epe laburreko likidezia adierazten du. Hori etorkizun hurbilean eskuragai dago gastuak finantzatzeko.

Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikin doitua.

Gastu orokorretarako geldikina honako hauekin doitzen da: aurrekontura aplikatzeko dauden hartzekodunen datuak eta ordaintzeko dauden diru-sarreraren itzulerak. Horrek magnitude horretako egoeraren irudi zehatzago bat ematen digu. Magnitudeak toki-erakundearen epe laburreko likidezia errealari buruzko informazioa ematen digu.

III-C.2 AURREZKI GARBIA.

Aurrezki garbiak Udalbatzaren zorpetze-gaitasunaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa izanez gero, erakundeak ez du epe luzera mailegu-eragiketa berririk egiteko gaitasunik. Berriz, aurrezki garbia positiboa bada, erakundeak mailegu-eragiketa berriak egin ditzake epe luzera. Kasu horretan, aurrezki garbiak mailegu-eragiketen zenbatekoei eta baldintzei buruzko informazioa ematen digu. Dena den, magnitude horrek elkartearen zorpetze-ahalmenari buruzko informazio zehatzago eman dezan honako hau egin behar da: behin Foru Arauaren arabera zenbatekoa kalkulatu, horri salbuespenak diren eta errepikatzen ez diren diru-sarrerak kendu behar zaizkio.

III-C.3 ZORRA FINANTZA-ERAKUNDEEKIN.

Zor bizia entitatearen finantza-kaudimena ebaluatzeko adierazle garrantzitsua da. Kaudimen arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorioz gerta daitezke. Gehiegizko zorpetze horrek



finantza-karga areagotzen du, eta hori gastu arruntei gehitzen badiegu, erakundearen diru-sarrerek ezin izango dute xurgatu. Horren ondorioz, aurrezki garbia negatiboa izango da.

III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA.

Aurrekontu-egonkortasunak elkartearen finantzatzeko ahalmenaren/beharrizanaren berri ematen digu. Horrek zeharka zorpetzea mugatzea dakar, urtero amortizatzen den zenbatekoa (SEC 95aren arabera kalkulatu) baino handiagoa izatea saihesteko. Elkarrekin finantzatzeko beharrizana badu, hau da, haren gastu ez finantzarioak diru-sarrera ez finantzarioak baino handiagoak badira, elkarrekin kanpoko finantza beharko du (zorpetzea) gastuei aurre egiteko.

Elkarrekin finantzatzeko ahalmena badu, hau da, diru-sarrera ez finantzarioak gastu ez finantzarioak baino handiagoak badira, erakundeak bere zorpetzeari aurre egiteko duen marjina adierazten du.

III-C.5 GASTUAREN ARAUA.

Gastuaren Araua zerga araua da. Horren helburua gastu konputagarria mugatzea da, hori ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako ehunekoan bakarrik igo dadin. Horrela, aurrezki publiko handiagoa lortzen da, diru-bilketa handitzeko neurri osagarriak ez dituen gastuaren igoerari hesia jarritz.

III-D. HAINBAT MAGNITUDEREN EBOLUZIOAREN ONDORIOAK

Gastuen eta diru-sarreraren egoerari buruzko kapitulu-tako datuak kontuan hartuta, ondorioztatu da aurrekontu-aldaketa diruzaintza-geldikinarekin finantzatzekoak ez duela Udalbatza hau desorekatzen maila estrukturalen. Eragina koiunturazkoa da, eta ezarritako helburuak urtebeteko epean beteko dira berriro, Plan ekonomiko-finantzarioa egin beharrik gabe.

V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTU ARRUNTETAN IZANGO DUEN ERAGINA.

Aztertutako proiektuekin aurrezki gordin garbia positiboa izango dela ondorioztatu da. Hori dela eta, kredituaren aldaketa honek etorkizunean ekar ditzakeen gastuen (edo inbertsioen) gastu arrunta entitatearen diru-sarrera arruntan bidez ordaindu ahal izango da. Halaber, zorpetzearen ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dago (ez dago zorrik). Hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatu da ez dela Udalbatzaren etorkizunerako jasagarritasun finantzarioa kaltetzen.



Horretaz gain, kontuan izatekoa da proposatutako aldaketek berez ez dutela gastu arrunta areagotuko datozen ekitaldietan.

Txosten hau kreditu aldaketaren espedientearen parte izango da.

Arabako Foru Aldundian toki-erakundearen arloan eskumena duen sailari osoko bilkuraren akta helaraziko zaio, organo esku-hartzailearen txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentuekin batera. Sail horrek beharrezkoa den informazio gehigarria eskatu ahal izango du 30 eguneko epean. Horretaz gain, neurri osagarriak hartzea ere eskatu ahal izango du, besteak beste, plan ekonomiko-finantzario bat egitea, toki-erakundearen jasangarritasun finantzarioa bermatzeko.

Arespalditzan.-

IDAZKARI ESKU-HARTZAILEA.- Sin.- Naiara Lazpita Marcos.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.

Jarraian, alkateak Udalbatzari jakinarazi dio urgentzia-arrazoiak direla medio Udalbatzaren osoko bilkurari kontuan hartu beharreko proposamen bat aurkezten zaiola. Proposamen hori Babestutako Ondarearen Udal Katalogoa aldatzeko espedientearen Ebazpeneko lehen puntuko transkripzioaren akats materiala zuzentzean datza. Katalogo horretatik atera behar da Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakia duen eraikina eta aurre egoera aitortu. Erabaki hori 2021ko abenduaren 23an eginiko osoko bilkuran hartu zen, eta ez zegoen gai-zerrendan jasota. Erabakia Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4. artikuluari jarraikiz hartu zen.

Akatsa zuzentzeko ezinbestekoa da gaiari buruz eztabaidatzea eta osoko bilkura honetan bozkatzea, interesdunari ahal bezain laster jakinarazi behar zaiolako.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak arrazoitzen du gaia gai-zerrendan sartu behar dela urgentziaz, aurretik azaldutakoa dela eta.

Lehenik eta behin, Udalbatzak gaiari buruzko eztabaidaren jatorriari buruzko iritzia eman du eta aho batez osoko bilkura honetan eztabaidatzea erabaki du. Beraz, honako puntu hau gehitu da:



3.- Babestutako Ondarearen Udal Katalogoa aldatzeko espedientearen Ebazpeneko lehen puntuko transkripzioaren akats materiala zuzentzea. Katalogo horretatik atera behar da Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakia duen eraikina eta aurre egoera aitortu. Erabaki hori 2021ko abenduaren 23an eginiko osoko bilkuran hartu zen.

Honi buruzko iruzkin gehiagorik ez dagoenez gaia bozkatu da eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Honako hau dio:

IKUSI DA.- 2021eko abenduaren 23an egindako osoko bilkuran, besteak beste, 6. akordioa onetsi zela. Horren bidez Babestutako Ondarearen Udal Katalogoa aldatzeko espedientea ebazten da, katalogo horretatik Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakia duen eraikina atera eta aurre egoera aitortzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Aipatutako akordioaren transkripzioaren lehenengo atalean dagoen akats materiala jakinarazi dela. Transkripzioak hau dio: “Udal Katalogoa aldatzeko espedientea ebaztea, eta katalogotik atera behar da Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakia duen eta 630 zenbakiarekin katalogatuta dagoen eraikina (...)”. Berez, aipatutako eraikina 360 zenbakiarekin agertzen da aipatutako Udal Katalogoan.

AINTZAT HARTU DA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua. Horren arabera, edozein unetan, ofizioz edo interesdunek eskatuta, akats materialak, egitezko okerrak, edo akats aritmetikoak zuzendu daitezke.

Udalbatza osoak **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- 2021ko abenduaren 23an eginiko osoko bilkurako 6. akordioaren 1. atalaren transkripzioan dagoen akats materiala zuzentzea. Akordio horretan Babestutako Ondarearen Udal Katalogoa aldatzeko espedientea ebazpen da. Katalogotik Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakia duen eraikina atera eta beraren aurre deklarazioa egin behar da. Akatsa duen atalak hau dio:

Lehenengoa.- Udal Katalogoa aldatzeko espedientea ebaztea, eta katalogotik Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakia duen eta 630 zenbakiarekin katalogatuta dagoen eraikina atera behar da, hondamen fisiko egoeran dagoelako eta ezin delako berreskuratu. Hori eraikinaren elementu estrukturalaren egoera dela eta da. Horri gehitu behar zaio ez dagoela beharrezko dirulaguntzarik eta eraikinak ez duela balio arkitektoniko, historiko edo artistiko berezi eta garrantzitsurik.”

Horren ordean, honako hau esan beharko luke:



“**Lehenengoa.-** Udal Katalogoa aldatzeko espedientea ebaztea, eta katalogotik Quejanako Ibaguen auzoko 10 zenbakia duen eta **360 zenbakiarekin** katalogatuta dagoen eraikina atera behar da, hondamen fisiko egoeran dagoelako eta ezin delako berreskuratu. Hori eraikinaren elementu estrukturalaren egoera dela eta da. Horri gehitu behar zaio ez dagoela beharrezko dirulaguntzarik eta eraikinak ez duela balio arkitektoniko, historiko edo artistiko berezi eta garrantzitsurik.”

Bigarrena.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea, 2021ko abenduaren 23ko osoko bilkuran erabakitako akordioaren gainerako atalek zeuden bezala jarraitzen dutela adieraziz.

4.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

Ondoren, 2021/723 eta 2022/14 zenbakien arteko alkatetzaren dekretuen berri ematen zaio Udalbatzari, biak barne. Horren xedea honako hau da, laburbilduz:

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/723.- Onbizi.- Arespalditzan eta Luiaondon bizikletak konpontzeko 2 gune jartzeko horniduraren kontratua esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/724.- Administrazio-batzarrari eta Sierra Salvada Ermandadeari dirulaguntza ordaintzea, 2021an ehiza-barrutiaren lursailen aprobetxamenduagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/725.- Aiarako merkataritzako, ostalaritzako eta enpresetako errotulazioan euskara sartzegatik dirulaguntzak emateko ebazpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/726.- EALZk egindako gestio gastuak onestea eta ordaintzea, 2021ko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/727.- Alkatearen eta langileen abenduko aparteko ordainsarien nominei dagokion hileko txostena onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/728. Udalak eskainitakoak ez diren musikari eta dantzari lotutako jardueretan parte hartzeagatik dirulaguntzak emateko ebazpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/729.- FJ.A.G.- Luiaondoko La Torre kaleko 13. zenbakian dagoen etxebizitzaren fatxadako linea elektrikoa kentzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/730.- Etxaurren Ikastolako IGEa. 2 urteko ikasgelako talde psikopedagogiko eta laguntzailearen nomina ordaintzea, 2021ko abenduko aparteko ordainsaria.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/731.- I.B.M.- Ordaindutako 2021ko TMIZren zati



proportzionala itzultzea, ibilgailuari baja eman zaiolako behin betiko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/732.- Aiarako Kuadrilla.- Diru-ekarpena genero-indarkeriari buruzko zerbitzu presentzialengatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/733.- Aiarateam Atsport.- BTT txapelketa antolatzeagatik hitzarmenaren dirulaguntza ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/734.- E.Q.SJ.- Soxon etxola bati estalia jartzeko eta etxebizitzaren fatxada margotzeko eskatutako obra-lizentziari uko egin zaiola onestea. Espedientea artxibatuko da.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/735.- H.E.P.- Olabezarreko Belaunde auzoaren 22 zenbakia duen eraikinaren aurri deklarazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/736.- F/2021/13 erregistratutako fakturen kontulariaren zerrenda onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/737.- 2021/723 Alkatetzaren Dekretuan egindako akats materiala zuzentzea, Arespalditzan eta Luiaondon bizikletak konpontzeko 2 gune jartzeko horniduraren kontratu txikia adjudikatzeari buruzkoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/739.- Autocares Cuadra, SA- Udaleko ikastetxearen eskola-garraioa zerbitzua onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/740.- 5-2021 kredituaren transferentzia egiteko espedientea onestea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/741.- G.G.A.- Zuatzan etxebizitza baten estaliko teilak ordezkatzeko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/742.- FJ.A.G.- Luiaondoko La Torre kaleko 13. zenbakian dagoen etxebizitza botatzeko udalaren obra-lizentzia ematea. Horretaz gain, dokumentazioa eskatuko zaio obrak hasteko lizentzia eman baino lehen.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/743.- FJ.A.G.- Luiaondoko La Torre kaleko 13. zenbakian dagoen etxebizitza botatzeko hondakinen kudeaketaren fidantza eskatzea, obrak hasteko lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/744.- EAE 2021ko polikiroldegietako kuoten ordainketa finantzatzeko dirulaguntzaren ebazpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/745.- Aiarako herrien kale-izendegia eguneratzeko eta informazio geografikoa hobetzeko laguntza teknikoaren zerbitzuari kontratu txikia esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/746.- A.Q.V.- Lanaldi osoko arkitektoa izateko behin-behineko kontratua sinatzea (EEP 2021/22).

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/747.- M.J.P.A.- Lanaldi osoko administrari



laguntzailea izateko behin-behineko kontratua sinatzea (EEP 2021/22).

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/748.- I.E.C.- Lanaldi osoko peoia izateko behin-behineko kontratua sinatzea (EEP 2021/22).

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/749. Y.M.R.- Lanaldi osoko peoia izateko behin-behineko kontratua sinatzea (EEP 2021/22).

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/750.- Orixe Comercial, SL- Zuatzako 2. poligonoko 2286 lursailean dauden 2 bi bizitzako etxebizitzetzi lehen erabilerarako lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/751.- Udal alderdi politikoei diru-ekarpena, 2021ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/752.- Alkateak 9/2021 Kreditu Gehigarriaren espedientea onetsi du.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/753.- Menagarai-Beotegiko administrazio-batzarra.- Menagarai-Beotegiko argiztapenean aldaketak egiteko udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/754.- Murgako poligono industrialaren birgaitze integratua egiteko aurreproiektua idazteagatik kontratu txikia esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/755.- Alkatearen eta langileen nominei dagokien hileko txostena onestea, 2021ko abendukoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/756.- Udalbatzako kideei diru-ekarpena egitea, 2021ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/757.- EUSKAL FONDOA.- “Pasmolon herrixkako edateko uraren sistema hobetzea, 1. fasea” proiektua kofinantzatzeko dirulaguntza zuzena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/758.- Alkateak 6/20201 Kredituaren Transferentziaren espedientea onetsi du.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/759.- Beste administrazio batzuei dirulaguntzak ematea eta ukatzea, gastu teknikoek ordainsarientzat..

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2021/760.- Beste administrazio batzuei dirulaguntzak ematea eta ukatzea, obrak egiteko gastuentzat.

ALKATETZAREN DEKRETUA -2021/761.- GStiona Kudeaketa SLren faktura onestea- Udal bulegoak birbanatzeko obrak.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/1.- I.P.U.- Lantenoko etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa egiteko udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/2.- GSDN. 2021ko azaroko kuota ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/3.- Alday Ongintzako Fundazioa.- Arespalditzako



Serralde auzoko 3 zenbakia duen eraikinaren estalkia mantentzeko udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/4.- Iñaki Isasi Taldea. Euskadi Ciclocross txapelketa antolatzeagatik dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/5.- Elkarkidetza Pentsioak.- Faktura likidatzeko ordainketa onestea, 2021ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/6.- J.G.A.- Murgako landa-etxebizitza birgaitzeko obra hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/7.- Estudio Arxproject, SL- Luliaondoko erabilera anitzeko gunea egokitzeko lanen proiektu teknikoa idazteko kontraturako jasotako fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/8.- Kontratututako langileen abenduko nomina eta aparteko ordainsaria ordaintzea EEP 2021/22.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/9.- 2021ko aurrekontuaren luzapena.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/10.- M.O.M.- Familia ugaria izateagatik hobaria 2022ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergan.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/11.- Tasa 4/2021 tokiko jabari publikoa aprobetxatzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/12.- Ned Suministro GLP SAU.- Tasa 4/2021 tokiko jabari publikoa aprobetxatzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/13.- R.R.A.- 2021ko TMIZri dagokiona itzultzea, ibilgailuari baja eman zaiolako behin betiko

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/14.- Etxaurren Ikastolako IGEa. 2 urteko ikasgelako talde psikopedagogiko eta laguntzailearen nomina ordaintzea, 2021ko abendukoak.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu du 723. dekretuari buruz galdetzeko.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), erantzun du dekretu horren bidez ONBIZIri Arespalditza eta Luliaondoko bizikletak konpontzeko guneak hornitzea esleitzen zaiola.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) berriro ere esku hartu du 732. dekretuari buruz galdetzeko.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), erantzun du gizarte-laguntza



zerbitzua zabaltzeko taldeari egin zitzaion ekarpena dela. Zerbitzua genero-indarkeria kasuetan ardaizten da, eta Alba teknikaria ostiraletan udaletxera etortzen da. Horretaz gain, jakinarazi du zerbitzua genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren dirulaguntzarekin finantzatu dela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu du 745. dekretuari buruz galdetzeko.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), erantzun du dekretu horren bidez kale-izendegi osoa digitalizatzeko zerbitzua Aialur enpresari esleitu zaiola. Horretarako Aldundiaren dirulaguntza jaso da.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu du 754. dekretuari buruz galdetzeko.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), erantzun du dekretu horren bidez DITECO, SLri kontratua esleitu zaiola, Murgako poligono industrialaren birgaitze integratua egiteko aurreproiektua idazteagatik. Hiru enpresei eskatu zitzaizen beren eskaintza, baina azkenean enpresa honek bakarrik aurkeztu zuen.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu du 757. dekretuari buruz galdetzeko, Euskal Fondoari emango zaion dirulaguntzari buruzkoa.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), erantzun du urtero bezala, Euskal Fondoari proiektuen finantzazio egoera eskatzen zaiola eta finantzatzeko beharra duten proiektuei buruz galdetzen zaiola, eta dirulaguntza zuzena egiten zaiola.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) dio ez dela azken bi dekretu horien berri eman dagokion informazio-batzordean. Dio urtarrilean bi batzorde egin direla eta ez dela aipatutakoa jakinarazi. Dekretu horiek onetsi ahal direla dio, baina eskatzen du batzordeetan jakinaraztea, denek jakin dezaten zer onesten den.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), erantzun du udal jarduera oportetako geldiaren ondoren berriz aktibatuko dela, eta orain arte zen bezala izatera itzuliko dela.

5.- Eskaerak eta galderak.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esku hartu du Laudioko hiltegiari buruz galdetzeko, ea Udalarekin hitz egin den jakiteko.



Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), erantzun du Gabonak baino lehen Laudioko Udalarekin harremanetan jarri zela, baina oraindik ez zitzaioela epaia heldu eta ez zekitela zer egin horri buruz.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esku hartu du Murgako poligonoa birgaitzeko proiektuaren aurreikuspenari buruz galdetzeko, ea zer egingo den proiektua idatzita dagoenean.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), eskua hartu du. Erantzun du idatzi behar duenari zer nahi den jakinarazi zaiola, eta hark erantzun duela gutxi gora behera bi hilabete beharko dituela proiektua idazteko. Alkateak gehitu du idatzi behar duenak proiektua helarazten duenean batzordeari helaraziko zaiola.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu du hausnarketa bat egin nahi duela jakinarazteko, mingostasunik gabe. Hausnarketa hori Hirigintza Batzordeari eramandako dokumentuari buruzkoa da. Dokumentua ekarpenak egiteko eta ondarea kontserbatzeko adostutako testua lortzeko zen. EAJk argudiatu zuen dokumentu hori ez zela baliozkoa. Izan daiteke aurkeztutako testua oso ona ez izatea, dio zinegotzi andreak, baina uste du horren gaineko hausnarketa egin ahal zela, guztien ekarpenekin jabeei laguntzeko edo haien alde egiteko testua idazteko.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), esku hartu du. Dio egindako hausnarketa kontuan hartuko dela, eta jakinarazi du dokumentu berri bat egiteko lanak hasi direla. Dokumentu hori Udalaren webgunera igoko da, obra-lizentziak eskatzeko informazioa eskuragai egon dadin. Hori hirigintzako informazio-batzordean hitzeman zen.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) berriro esku hartu du ondasuna babesteko neurriak hartzeko aukera oso ona galdu zela esateko.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du ikastaroren batzuk egiteko aukera izango ote den herritarrek beharrezkoak diren online izapideak egiteko gutxieneko gaitasuna izan dezaten. Gaur egun gero eta online izapide gehiago daude, eta jende askok ez daki horiek nola egin.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), dio iaz Etxaurren Ikastolako



IGEaren bidez korreo elektronikoa eta hainbat plataforma erabiltzen ikasteko ikastaroa egin zela. Gainera, hilabete honetan herritar guztientzat erreminta teknologikoei (helbide elektronikoak egitea, zoom plataforma, meet, etab.) buruzko ikastaroa egingo da Kz-Gunean. Alkateak gehitu du otsaileko batzordean horri buruz hitz egingo dela. Helburua herritar guztiei helduko zaien gida bat egitea da, udalarekin eguneko ordu eta urteko egun guztietan egin daitezkeen izapide telematikoak aditzera emateko. Gida hori Zaraobe aldizkariarekin bidaliko da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) esku hartu du eransteko haiek herritarrei beste izapide batzuk egiteko gaitasunak emateari buruz ari direla, adibidez Osakidetzan, Eusko Jaurlaritzan, etab. Halaber, esaten du hori guztia egiteko Internet konexio ona behar dela, eta horrekin arazoak daudela oraindik ere, gabezia asko daudela. Udalak konexiorik gabeko eremuak ezagutu beharko lituzke. Behin horiek ezagututa, Aldundiarekin Interneta edonora heldu dadin kudeaketak egin beharko lituzke, argi dagoelako gero eta beharrezkoagoa dela.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV), esku hartu du azaltzeko Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak badituztela konexio gabeko guneak identifikatuta, eta Udaletik egoera hobetzeko ahaleginak egingo direla. Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari presioa egingo die konexioa gero eta leku gehiagotara heldu dadin.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko abenduaren hogeita hiruan.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.